

ERASOKORRETIK ERAKARGARRIRA

Euskara zainzuriak bezain nafarra denez haien prestigioa eta izen ona merezi ditu

 **HIZKUNTZA** / amagoia.mujika@gaur8.info

Euskara ez da nafar batzuen bakarrik, nahiz eta herritar batzuen begietara euskara ideia politiko jakinak dituztenen hizkuntza den, «arerioarena», eta kontra egin behar zaio horregatik. Hizkuntzak konfrontazioaren lubakitik atera behar dira aurrera egingo badute, nahiz eta beti ez den erraza izaten. Baina badaude estrategiak.

Nafarroako jendartearen parte batek euskarari begiratzeko modu bitxia dauka: hizkuntza bat ikusi beharrean, arrisku bat ikusten du, mehatxu bat. Horrek gutxi du kasualitatetik eta asko kausalitatetik, urteetan eta hamarkadetan elikatu den diskurtso baten haritik baitator. Baina, nola eman dakioke buelta ikuskera horri? Iñaki Martínez de Luna Soziolinguistika Kluste-

rreko kidea da eta buelta asko eman dizkio kezka horri. «Diskurtso interesatu horien atzean normalean interes politikoak egoten dira. Azken mende- an euskararen defentsa nagusiki abertzaletasunetik egin denez eta horrek emaitzak eta aurrera- pausoak ekarri dituenek, klabe ideologiko horietan sartzen ez direnek euskara abertzaletasu- narekin identifikatzen dute. 'Hori etsaien, arerioen, ikurra bada, guk horren kontra egin behar dugu'. Hori da ikuskera».

Martinez de Lunak garbi dauka: «Hizkuntzek badituzte politizatuak izateko arrazoiak, baina estrategia bezala horrek ondorio batzuk dakartza. Hizkuntzak era politikoan ulertzen direnean, horiekiko konfrontazioa areagotu egiten da. Horregatik defendatu behar ditugu bestelako bideak. Euskara ikur identitarioa da, baina ez bakarrik abertzaleena. Herritar guztien ikur identitarioa izan beharko luke. Zainzuriak nafarrak dira eta horregatik prestigioa eta izen ona dute. Euskara berdin-berdin. Abertzale sentitu ala ez, euskara Nafarroako ondarearen parte garrantzitsua da eta denontzako balio moduan ulertu eta zabaldu behar dugu. Denok izan behar dugu euskara aurrera ateratzeko erantzukizuna».

Euskarak irudi politizatua dauka neurri batean euskarak aurrera egin dezan motorra identitarioa izan delako. Eta eskerrak horri neurri batean. Baina horrek karga bat ere badakar, aurrera egitekotan arindu beharrekoa. «Hitzetan, proposamenetan eta ideietan erasokorrak izan beharrean erakargarriak

Euskarazko haur eskolen aldeko elkarretaratzak ugariak izan dira Iruñean azken asteotan. Idoia ZABALETA | ARGAZKI PRESS



izan behar dugu. Euskaraz ez da-
kienari ikusarazi behar diogu
zenbat galtzen ari den euskara-
ren mundu aberats hori ezagutu
gabe».

ERRESISTENTZIAREN LUBAKIAN

Egia da, baina, euskarak denbora
asko eman duela erresistentzia-
ren lubakian, eusten eta eusten.
Eta maiz zaila izaten da hortik
ateratzea. «Erresistentzian zau-
denean, gainera, jarrera bortitza
izan ohi duzu. Eraso egin dizute-
la sentitzen duzu eta erantzun
egiten duzu. Hori oso ulergarria
da, baina ez da estrategiarik ego-
kiena. Hausnartu eta pentsatu
egin behar da: nola erantzun era-
soei modu inteligente eta patxa-
datsu batean eta konfrontazioa
elikatu gabe? Hor dago gakoa»,
iritzi dio Martinez de Lunak.

Badirudi, beraz, politikan mo-
dan jarri diren haize eta modu
berriak euskararen defentsara
ere ekarri behar direla. «Hala
ere, nik uste dut Nafarroan bi
mundu daudela, bata bestetik
aparte: hedabideetan eta politi-
koen ahotan konfrontazioa su-
matzen da, baina, gizartean, ez
hainbeste. Gizarteak askoz mo-
du lasaiagoan eta irekiagoan ku-
deatzen du hizkuntzen arteko
elkarbizitza. Gizarteak ez du ga-
tazka maite. Askotan konfor-
mismoagatik eta ez hainbeste
konbentzimenduagatik, baina
jendeak lasai bizi nahi du. Eus-
kara bai, baina agresibitate-
rik gabe, inposatu gabe...».

Nafarroan euskararen kontra-
ko erasoak askotarikoak eta
denboran jarraituak izan dira
azken hamarkadotan. Baina,
erasoak eraso, euskarak bidea
egin du soziolinguistikoki, «gi-
zarteari esker», dio garbi Marti-
nez de Lunak. «Gizartean ez da
zaila hizkuntzen aldeko mezua
zabaltzea, baina interferentzia
eta ika-mika politikoa hor dago.
Eta horrek eragin negatiboa
dauka. Baina horretarako daude
bestelako sareak, harremanak,
egiturak, erakundeak, elkarte-
ak... Maila horretan lan egitea
oso garrantzitsua da eta Nafa-
rroan lan asko egin da», nabar-
mendu du.

Hizkuntza aniztasuna eta be-
reziki hizkuntza txikiak zaintze-



ko tresnak badaude. Horietako
bat da hizkuntza ekologia, Einar
Haugen hizkuntzalari estatuba-
tuarrak 1972. urte inguruan ma-
hai gainean jarri zuena eta Eu-
ropa mailan indartsu dabilena.
Haugenek abisu eman zuen
munduko hizkuntzen galera
izugarria gertatuko zela gauzak
aldatzen ez baziren. Eta asmatu
egin zuen: egun munduan
6.500 hizkuntza inguru hitz egi-
ten dira, baina erdia baino
gehiago galtzeko bidean daude.

Hizkuntza-ekologiak galdera
garrantzitsu bat proposatzen du:
nola da posible naturarekin hain
kezkatuta dagoen jendarte hain
axolagabea –eta, batzuetan, kru-
dela– izatea berak sortu dituen
hizkuntzekin? Izan ere, hizkun-
tzak ez dira berez jaio, bizi eta
hiltzen. Inguratzen dituen eko-
sistemak huts egiten dielako de-
sagertzen dira hizkuntzak eta
ekosistema hori hiztunen komu-
nitateak osatzen du.

Hizkuntza-ekologiak hizkun-
tzen artean sortzen diren talkak
ere zaintzen ditu, maiz hizkun-
tza botereitsuak hizkuntza txi-
kiagoa zapaltzen baitu, horrek
dakartzan kalteekin. Hartara, ai-

Nafarroan EITBren
emisioak eten
izana salatze-
ko elkarretaratzea, UPNren
egoitzaren aurrean.
Iñigo URIZ | ARGAZKI PRESS

patutako paradigmak hizkun-
tzen arteko harreman ekologi-
koak defendatzen ditu.

KONFRONTAZIOTIK URRUNDU

Eta hizkuntzen arteko berdinta-
suna ere defendatzen du. Baina
ez du esaten denak berdin trata-
tu behar direnik, alderantziz,
egoera desberdinetan dauden
hizkuntzak berdin tratatzea ger-
tuago baitago injustiziatik. Hiz-
kuntza-ekologiaren arabera,
egoera desorekatua den kasue-
tan neurriak hartu behar dira
hizkuntzek aukera berdinak
izan ditzaten. Euskal Herrian
entzuten diren diskurtsoak eta

ikusten diren jarrerak hizkun-
tza-ekologiatik urrun samar iza-
ten dira askotan. Soziolinguisti-
ka Klusterreko Belen Urangaren
hitzetan, «konfrontaziotik ger-
tuago gaude eta oso normala
iruditzen zait, honainoko bidea
oso gogorra izan delako, eta ez
gure herrian bakarrik. Gaur
egungo hizkuntzen egoera ez da
berez etorri den zerbait, hizkun-
tza handietako komunitateek
egindako ibilbide historiko ba-
ten ondorioa da, zapalkuntza-
ren ondorioa. Hori ukaezina da
eta zaila da hori sufritu duenak
bere hizkuntza konfrontazio ho-
rretatik aparte ikustea».

Segur aski etorkizunari begira
paradigma berrien gainean ibil-
tzen hasi beharra dago, hizkun-
tza aniztasuna benetako erreali-
tate bihurtzen ari da eta.

Akaso hizkuntza-ekologiaren
argudioek ez dute txispa nahi-
korik izango jendarte euskara-
ren alde pizteko, baina euskara-
rekiko kontraktasuna pixka
bat itzaltzeko balio baldin badu-
te, ez da gutxi. Euskara zainzu-
riak bezain nafarra denez, haien
prestigioa eta izen ona merezi
dituelako.

**Euskarak irudi politizatua dauka neurri batean
euskarak aurrera egin dezan motorra
identitarioa izan delako. Eta eskerrak horri.
Baina horrek karga bat ere badakar**

**«Politikan igartzen den konfrontazioa ez da
hain bortitza gizartean. Gizarteak ez du gatazka
maite, lasai bizi nahi du; konformismoagatik
konbentzimenduagatik baino gehiago akaso»**